

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera ateratzeko ez dugu gauza handirik behar. Hasteko lekua egokia izatea behar dugu, herritar guztientzat eskuragarri egotea, horretarako herri erdigunean egotea interesatuko litzaiguke. Ondoren, elikagaiak uzteko leku horretan, ontzi batzuk egongo dira, bertan gordetzeko produktuak. Ondo egongo litzateke horiek ez bustitzea, beraz, etxetxo moduko baten barruan egotea izango litzateke egokiena lehor eta antolatuta egoteko. Azkenik, baserritar eta dendariak borondatez parte hartzea ekimen horretan oso garrantzitsua izango da. Izan ere, ontzien barruan dagoen janaria baserrietako eta dendetako fruitu, barazki eta beste elikagai batzuen artean ogia izango dira.